



KOORDINAZIO ZUZENDARITZAREN TXOSTENA, EUSKARAREN AGENDA ESTRATEGIKOA 2021-2024 PROPOSAMENARI BURUZKOA

I. Aurrekariak

Gobernu Kontseiluaren 2020ko abenduaren 15eko Erabakiaren bidez (aurrerantzean, GKE), XII. Legegintzaldiko plan estrategikoen zerrenda, plan horiek egiteko jarraibide orokorrak eta horiek izapidetzeko jarraitu beharreko prozedura onartu ziren. XII. Legegintzaldiko plan estrategikoen zerrendan, Euskararen Agenda Estrategikoa (aurrerantzean, Agenda) jaso zen, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Saila identifikatu zen plan horren sustatzaile gisa.

2021eko ekainaren 17an, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, sail sustatzailea den aldetik, Koordinazio Zuzendaritzaren txostena eskatu zuen, Tramitagune aplikazioaren bidez (AAAA_PDG_12462/21_11 espedientea), Agenda proposamenari buruz.

II. Txostenaren xedea

Txosten honen xedea da Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusiko Koordinazio Zuzendaritzak Agendaren proiektuari buruz egindako gogoetak ematea, GKEan ezarritakoari dagokionez.

Txosten hau Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarilaren 19ko 5/2021 Dekretuaren 11. artikuluko a) eta c) idatz-zatietan xedatutakoaren arabera egin da. Dekretu horrek Koordinazio Zuzendaritzari esleitzen dio Jaurlaritzaren jarduna koordinatzeko eta haren jarraipena egiteko eginkizuna, bai eta sailei jarduerak planifikatzeko eta programatzeko aholkularitza ematekoa ere.

Nabarmendu behar da txosten honetan jasotako oharrek Koordinazio Zuzendaritzak egiten duen aholkularitza-lanaren osagarri direla.

Aurrekoaren harira, gogorarazi behar da GKEak, I. eranskineko 2. puntuan, adierazten duela sail sustatzaileak Lehendakaritzako Koordinazio Zuzendaritzaren eta Ekonomia eta Ogasun Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren laguntza eta lankidetzaz izango dituela planaren proposamena egiteko prozesuan.

Horrekin bat etorritik, Koordinazio Zuzendaritza honek Planaren aurreko bertsioei buruzko iritzia emateko aukera izan du. Bertsio horiei buruzko oharren dokumentu bat igorri da, eta horietatik abiatuta, Planaren sustatzaileen ekimenez, 2021eko ekainaren 8an egindako bileran, Koordinazio Zuzendaritza honek hautemandako eragozpenei heldu die. Aipatutako lankidetzaren ondorioz, orain aztertzeke aurkezten den dokumentuak Zuzendaritza honen hainbat ekarpen jaso ditu.



III. Agenda, XII. Legegintzaldiko plangintzaren orientabide orokorreari dagokienez

GKEak, I. eranskineko I.2 atalean, orientabide orokor batzuk jasotzen ditu, plangintza estrategikoaren lantze-prozesua eta edukiak homogeneizatzeko.

Aipatutako orientabide orokorren edukietatik abiatuta, egokitzen jotzen diren gogoetak aipatzen dira jarraian.

a) Gobernu Programan politika publiko bakoitzerako ezarritako edukiei erantzun behar diete plan estrategikoek.

XII. Legegintzaldiko Gobernu Programak (aurrerantzean, GP), II ardatzean (pertsonek), 18.2 arloan (euskara), hizkuntza-erabileraren erabateko bermerantz aurrera egitea eta euskara gure bizitzako eremu guztietan erabili ahal izatea ahalbidetzea jasotzen du helburutzat. Horrela, euskararen normalizazioa lortzeko, eremu sozioekonomikoa eta lan-eremua, ingurune digitala eta aisialdia, eta familia-transmisioa jotzen ditu hurrengo urteetako erronka garrantzitsutzat. Aurrekoei eta beste erronka batzuei erantzun beharko die Euskararen Agenda Estrategiko berriak. Halaber, GPak euskararen ezagutzan eta erabileran aurrera egiteari herri helburu izaera eman dio.

Bada, Agendak herri helburu hori jaso ez ezik, sakon lantzen ditu ere 18.2 arloari dagozkion edukiak. Hain zuzen ere, GPko 118tik 120rako konpromisoak aintzat hartzen ditu, eta GParen egitura jarraituz, ekimenak gauzatzeko jarduerak zehazten ditu.

Era berean, plana zeharkakoa denez, Agenda proiektuak beste konpromiso batzuk aipatzen ditu: Hezkuntza Saila (54.1, 61.3 eta 66.3, 4, eta 5); Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak Saila (99.6), Kultura eta Hizkuntza Politika Saila (112.1, 116.1, 117.2 eta 122.3) eta Lehendakaritza (139.3) (Oharra: Hezkuntza Sailaren konpromiso eta ekimenei dagokien aipuak, 61.2 ordez, 61.3 esan beharko luke). Horren haritik, konpromiso eta ekimenak identifikatu ez ezik, sail horiei guztiei dagozkien jarduerak ere jaso direla nabarmendu behar dugu.

Hortaz, GParen eta Agendaren edukien arteko analisi konparatibo batetik abiatuta (funtsean, sarreran “2020-2024 Gobernu Programa” atalean), esan dezakegu, oro har, lerrokatze egokia ikusten dela. Lerrokatze egoki hori ezinbesteko premisa da Agendak GPan ezarritako helburuak gauzatzeko.

b) XII. Legegintzaldiko plan estrategikoek bat etorri behar dute nazioarteko eta Europako politikekin, beren jarduera-eremuan.

Agendan bertan azaltzen denez, Gobernu Programan jasotako konpromiso horiek guztiek bat egiten dute Nazio Batuetako Erakundearen *Garapen Jasangarrirako 2030 Agendan* zehaztutako helburuekin. Zehazki, HPSri euskara sustatzeko beren-beregi dagozkion 118., 119. eta 120. konpromisoak garapen jasangarrirako 4. helburuan – Kalitatezko Hezkuntza– txertatzen dira.

Bestalde, Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna aintzat hartzen dela zalantzan jarri gabe, Europako Kontseiluak egindako ebaluazioaren haritik, Ertzaintza eta Osakidetzarekin lotutako gomendioei erantzun egokia emateko jardueren



zehaztapenaren falta sumatu dugu. Segurtasun arloari dagokionez, Agendak aurreikusi du ertzainak euskalduntzeko hitzarmenekin jarraitzea. Osasun arloari dagokionez, osasun arloko langileak euskalduntzeko hitzarmenei buruzko aipua baino ez dago. Horrenbestez, jarduera zehatzak (edo, behintzat, jarduera ildo zehatzak) jasotzea gomendagarria iruditzen zaigu.

c) XII. Legegintzaldiko Plan Estrategikoak bat etorri behar dira Jaurlaritzaren aurrekontu-programazioarekin eta plangintza ekonomikoarekin.

Plangintzaren eduki horiek Agenda proposamenaren 5. atalean aurkezten dira, "BALIABIDE EKONOMIKOAK" atalean. Hala ere, aurrekontu-edukien egituraketa ez dator bat Agendaren egiturarekin, eta horrek zaildu egiten du horiek ulertzea. Horregatik Agendan jasotako informazio ekonomikoaren osagarri gisa, aurreikusitako jardueren edo jarduera-ildoen informazio ekonomikoa jasotzea proposatzen dugu.

Nolanahi ere, arlo ekonomikoari dagokionez, kontuan hartu beharko dira Aurrekontuen Zuzendaritzak eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak – biak Ekonomia eta Ogasun Sailekoak – egin behar dituzten txostenetan horri buruz jasotzen diren gogoetak.

d) Plan estrategiko bakoitzaren abiapuntuko oinarriak, ahal den neurrian, kontuan hartu beharko du aurreko aldian inplementatutako plana, behar bezala ebaluatua.

GKEaren I. eranskineko I.2 puntuak dioen bezala, "Plan Estrategiko bakoitzaren abiapuntuan, ahal den neurrian, aurreko aldian inplementatutako plana kontuan hartu beharko da, behar bezala ebaluatuta". Orientazio hori politika publikoa ezartzeko zirkuluari dagokio: diseinua, gauzatzea eta ebaluazioa, diseinu honekin hasteko ezinbesteko urrats gisa.

Alabaina, Agendan azaltzen denez, ebaluazioa egiteko iturri nagusia *Inkesta Soziolinguistikoa* da. Azkeneko datuak 2016ko inkestakoak dira eta hurrengo inkesta 2021ean egingo da; ondorioz, aurreko Agendaren ebaluazio osoa egiteko erreferentzia nagusiak falta dira. Beraz, ondo arrazoituta agertzen da ebaluazioaren gabezia.

Hala eta guztiz ere, Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020 atalean, gabezia hori alde batera utzi gabe, adierazleetatik ondorioztatutako zehaztasun ugari jaso dira. Testuingurua kontuan hartuz, egokitzat jotzen da emandako informazioa.

Dena den, Inkesta Soziolinguistikoa berria gauzatatukoan, ebaluazio egokia egin beharko da, beharrezkoa balitz, Agenda bera egokituz. Horrekin lotuta, Agendan bertan jasotzen da planifikatutako aldian sortzen diren gorabeherak, baldin eta planaren alderdi estrategiko edo ekonomikoetan aldaketa nabarmenak eragiten badituzte, Gobernu Kontseiluari jakinaraziko zaizkiola, Koordinazio Zuzendaritzaren eta Ekonomia eta Plangintza eta Aurrekontuen zuzendaritzen txostenak jaso ondoren.

e) Plangintza estrategikoaren indarraldia bat etorriko da, ahal den neurrian, Europako edo, hala badagokio, nazioarteko plangintza-mugarriekin.

Agendak 2021etik 2024ra bitarteko indarraldia ezartzen du, lehen aipatutako planen jarraipen gisa (Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020). Denbora-epemuga hori bat dator legegintzaldirako aurreikusitakoarekin.



Kasu honetan, Europa eta nazioarte mailan ez dugu jasotako indarraldia baldintza lezakeen plangintza-mugarriak aurkitu.

f) Plan estrategiko bakoitza egiteko eta ezartzeko, sail bakoitzaren berezko zerbitzuak erabiliko dira lehentasunez, eta, beharrezkoa izanez gero, kanpoko zerbitzuen laguntza izango da elementu osagarri gisa edo laguntzeko idazkaritza tekniko gisa.

Agenda formulatzeko prozesuan Koordinazio Zuzendaritzarekin izandako hartu emanetan argi ikusi denez, Kultura Sailak eta, zehazki, Hizkuntza Politika arloak, berezko baliabideak erabili izan ditu. Beraz, GKEak jasotako betekizun hau betetzat jo behar dugu.

g) Planak adierazle homologagarrien sistema bat jasoko du, inplementatutako politikaren emaitzen urteko ebaluazioa egiteko aukera emango duena, eta, haren alderdi nuklearrei dagokienez, XII. Legegintzaldiko Gobernu Programaren gauzatzearen jarraipena egiteko ezarritako adierazleekin bat datozenak. Era berean, plan orok bere betetze-mailari buruzko azken txosten bat jaso beharko du, eta lau urtetik gorako iraupena duten planen kasuan, jarraipenerako tarteko txostenak.

Jarraipen- eta ebaluazio-sistema

Agendaren arabera, xehatutako konpromiso eta ekimen bakoitzaren betetze maila urterik urte neurtuko da eta horietako bakoitza gauzatzeko ezarri diren jarduerak maila kuantitatiboan eta kualitatiboan aztertuko dira.

Horrekin lotuta, 7. puntuko azken paragrafoetik ondorioztatzen da urtez urteko jarraipen txostena egingo dela. Alabaina, komeni litzateke Agendaren indarraldia bukatutakoan ebaluazioa egingo dela modu argiagoan adieraztea. Izan ere, "legegintzaldi amaierako ebaluazio txostena" adierazpideak ebaluazio horren objektuari buruzko zalantzak sor ditzake.

Adierazleen sistema

Agendaren 7. atalean proposatutako adierazleen panelak 9 adierazle jasotzen ditu. Panel hori bat dator, bere alderdi nuklearrei dagokienez, GPa gauzatzearen jarraipenerako adierazleen sistemarekin. Beheko koadroan Agendaren adierazleak eta GParen adierazle sistema erkatu ditugu:

| GParen adierazle sistema | Agendaren adierazleak |
|---------------------------------|---|
| E38a | Euskaldunen bilakaera |
| E38b | Gazte euskaldunen kopurua (< 30 urte) |
| S42 | Euskararen erabileraren bilakaera |
| D11-3 | Euskararen erabilera arloka: <ul style="list-style-type: none"> ● Etxekoa ● Lagunartekoa ● Formala ● Lankideekin ● Eskolan (LMH4 / DBH2) ● Ingurune digitalean ● Eskola kirolean ● Hedabideetan |
| D11-2 | Euskararen transmisioa: |



| | |
|-------|--|
| | <ul style="list-style-type: none"> • 1. hizkuntza euskara • 1. hizkuntza biak • 1. hizkuntza erdara |
| D10-4 | Euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera |
| | BIKAIN ziurtagiria lortu duten erakundeak |
| | Konponbide egokia izan duten Elebideko intzidentziak |
| | Euskararen erabilera sustatzeko inbertsioa |

Bistan denez, Agendak jasotzen dituen bederatzia adierazleetatik gehienak GParen adierazle sisteman jasota daude edo, behintzat, oso gertukotzat jo ditzakegu.

Bien arteko integrazioan aurrera egiteko, terminologia, metodologia edo bestelako ikuspegietatik egon litezkeen aldeak ahal beste murriztea komeni litzateke.

Bestalde, deigarria iruditu zaigu ezagutzarekin lotutako herri-helburua Hezkuntza Sailaren jardunarekin hain lotuta egonik, aukeratutako adierazleen artean arlo horretako adierazlerik jaso ez izana. Edozelan ere, kontu hau baloratzea, noski, ezagutza teknikoak duten organoen esku utzi dugu.

Azkenik, jarraipena egite aldera jarduera bakoitzarekin lotutako emaitza- edota jarduera-adierazleak jasotzea egokitzen jotzen da. Horretarako, aurrekontuen memorian eta dirulaguntzen plan estrategikoetan jasotako adierazleetara jotzeko aukera aztertzea proposatzen dugu.

IV. Agenda proposamenari buruzko bestelako gogoetak

Koordinazio Zuzendaritzak Agenda proposamenari buruz egindako gogoeta hauek jaso dira, jarraian xehatutako edukiei dagokionez:

a) Plan estrategikoen gutxienerako edukia.

Plan estrategikoen gutxienerako zortzi edukietatik (GKEan deskribatutakoak), egiaztatu da Planak guztiak jasotzen dituela: (1) helburu programatikoa; (2) egoeraren diagnostikoa; (3) egiturazko edukia (printzipioak, ardatz estrategikoak, helburuak), (4) garatu beharreko jarduerak, (5) plangintza ekonomikoa, (6) erakunde-harremanaren eskema, (7) gobernantza- eta ebaluazio-eredua (8).

Egoeraren diagnostikoari dagokionez, aurreko planaren aurretiazko ebaluazioa egiteko beharri buruz esandakoa errepikatu behar da. Ebaluazioa egiteko iturri nagusia *Inkesta Soziolinguistikoa* izanik, ulertzekoa da aurreko Agendaren ebaluazio osoa egiteko erreferentzia nagusiak falta direla. Beraz, ondo arrazoituta agertzen da ebaluazioaren gabezia. Edozelan ere, diagnostikoari dagokionez, Agendan jaso diren adierazleetatik ondorioztatutako xehetasunen balioa nabarmendu behar dugu. Xehetasun horien balioa gutxietsi gabe, informazio iturriak eskuragarri daudenean ebaluazioa egin beharko da, Agendan agertzen den diagnostikoaren osagarri gisa.

Egiturazko edukien esparruan, ume eta nerabeen euskalduntzeari buruzko helburuak identifikatu ez izana (edo, ezagutzaren kasuan, oker ez bagaude, kanpoan utzi izana) ez dugu egokitzen jotzen. Ildo horretan, jakina da hezkuntza sistemaren garrantzia ezagutza eta erabilera sustatzeari begira. Jakina da, era berean, hezkuntza sistemak ume eta nerabeei eragiten diela, batik bat. Hortaz, Agendak, gure ustez, umeen eta



nerabeen eskolaren bitarteko euskalduntzea ezin du helburutzat baztertu. Aitzitik, berenberegijaso eta, esan bezala, eskola eta ezagutza uztartzen dituen adierazleren bat jasotzea egokia den aztertu beharko litzateke.

Bestalde, komeni litzateke helburuen atalean (edo, bestela, adierazleen atalean), ahal den heinean helburu bakoitzeko partidako egoera eta helmuga kuantifikatzea.

Inplementatu beharreko jardueri dagokionez, deskribapena osatzeko aukera aztertzea proposatzen dugu, posible den kasuetan objektua gehiago definituz eta honako eduki hauek barne hartuz: jarduerak eraginkortasunez gauzatzeko behar diren baliabideak; ardura izango duten organoak; gauzatzeko epea; eta emaitza- eta jardueradierazleak. Lan horri ekiteko ezinbestekotzat jotzen dugu sail guztien ekarpena. Ekarpene horren bitartez posible izango da jardueren zerrenda xehea osatzea, beharrezkotzat jotzen ditugun aipatutako edukiekin, sail bakoitzari dagokion eskumen esparrua aintzat hartuz. Jakina denez, eskumen esparruak determinatzen du jardueren inplementazioan bakoitzari dagokion lana, eta jarraipena eta ebaluazioa egiteko unean organo eskudunek egin beharreko aportazioa ezinbestekotzat jotzen dugu.

Plangintza ekonomikoari dagokionez, informazioa osatzeko aukera baloratzea proposatzen dugu, aurretik esandakoak aintzat hartuz.

Azkenik, ebaluazioari dagokionez, hezkuntza arloko adierazleei buruz esandakoaz gain, zalantzarako aukerarik egon ez dadin, Agendaren indarraldia bukatutakoan Agendaren ebaluazio txostena egingo dela argi adieraztea proposatzen dugu.

Horrela, Plan Estrategiko orok PDII proposamenari dagokionez eduki behar dituen gutxieneko edukiak egiaztatzeko taula honako hau da:

| | PLANAREN PROPOSAMENAREN EDUKIA | |
|---|--|-------------|
| 1 | Sarrera. Gobernu Programaren lotura | ✓ |
| 2 | Egoera-diagnostikoa. | ✓ |
| 3 | Printzipio, ardatz edo helburu estrategikoak.. | Moldagarria |
| 4 | Inplementatu beharreko ekintzak | Moldagarria |
| 5 | Plangintza ekonomikoa. | Moldagarria |
| 6 | Erakunde-harremanak eta partaidetza. | ✓ |
| 7 | Gobernantza Eredua. | ✓ |
| 8 | Jarraipen- eta ebaluazio-sistema | Moldagarria |

b) Ekimenak Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde-artikulazioaren esparruan eta haren eskumen-esparruan kokatzea, bai eta beste administrazio-eremu batzuekiko koordinazioa ere.

Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren (Autonomia Estatutua) 6. artikulua honako hau xedatzen du:

1.-Euskara, Euskal Herriaren hizkuntza propioa, hizkuntza ofiziala izango da Euskadin, gaztelania bezala, eta bertako biztanle guztiek dute bi hizkuntzok jakiteko eta erabiltzeko eskubidea.



2.-Autonomia Erkidego osorako erakundeek, Euskal Herriaren aniztasun sozio-linguistikoa kontuan hartuz, hizkuntza bion erabilera bermatuko dute eta bion ofizialtasuna arautuko, eta beren ezagutza ziurtatzeko behar diren neurri eta baliabideak bideratu eta arautuko dituzte.

3.-Inor ezin izango da hizkuntza dela-eta diskriminatu.

4.-Euskarari dagozkionetan, Euskaltzaindia erakunde aholku-emaile ofizial da.

5.-Euskara beste euskal lurralde eta gizatalderen ondare den aldetik eta erakunde akademiko eta kulturazkoak izan ditzaten harreman eta loturez gain, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak eskatu ahal izango dio Espainiako Gobernuari lurralde eta gizatalde horiek kokaturik dauden edota bizi diren estatuekin kulturazko harremanak bideratzeko itun hitzarmenak izenpetu eta, hala badagokio, Gorte Nagusien aurrean, baimentzeko, aurkeztu ditzala, euskara zaindu eta bultzatze aldera.

10/1982 oinarrizko Legeak, azaroaren 24koak, euskararen erabilera normalizatzekoak, 5. artikuluan honako hau ezartzen du:

1.- Euskal Herriko herritar guztiek dute hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, bai ahoz eta bai idatziz.

2.- Euskal Herriko herritarrei honako funtsezko hizkuntza-eskubide hauek aitortzen zaizkie:

a) Administrazioarekin edota Autonomia Erkidegoan kokatutako edozein erakunde edo entitaterekin harremanak euskaraz zein gaztelaniaz izateko eskubidea, ahoz nahiz idatziz.

b) Irakaskuntza hizkuntza ofizial biotan izateko eskubidea.

c) Aldizkariak eta irrati-telebistetako eta beste hedabideetako emanaldiak euskaraz jasotzeko eskubidea.

d) Lanbide-jarduerak, langintza, politikagintza eta sindikatu-jarduera euskaraz egiteko eskubidea.

e) Edozein bilkuratan euskaraz mintzatzeko eskubidea.

3.- Herri-aginteek eskubide hauen erabilera ziurtatuko dute Autonomia Erkidegoaren lurraldean, eraginkorrak eta benetakoak izan daitezen.

Lege horren 29. artikulua (beste erakunde batzuekin harremana) honako hau jasotzen du:

Jaurlaritzak, euskararen erabileraren normalizazioa ahalbidetzeko, Lege hau gauzatu eta garatze aldera erakunde guztien lanak eta ahaleginak aztertu, bideratu eta bateratzea helburu izango duen topagune bat sortuko du.

Agendan azaltzen diren jardueretako asko erakunde arteko izaera dutela nabarmendu behar da. Jarduera horiek, printzipioz, eskumen esparruaren barruan kokaturik daude.

Haiek implementatzeko, 6. atalak erakundeen arteko harremana aztertzen du, barneko erakundeak eta kanpokoak bereiziz. EAE barruan, aginteen jarduna koordinatzeko organo instituzional nagusia Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordea (HAKOBA) da. EAetik kanpo euskararen eremuan elkarlanerako egitura nagusia 3ko ituna da. Horretaz gain, Agendak berak Estatuko hainbat erkidegotako gobernuekin hizkuntza politika alorrean dagoen lankidetzaren berri ematen du.

Alabaina, Estatuko organoekin harremanari dagokionez, "Dirección General de Tráfico" organoarekin sinatuko litzatekeen protokoloa salbu, ez da jarduerarik ez koordinaziorako bitartekorik jasotzen. Beraz, estatu mailako esparruan bestelako jarduerarako edo koordinaziorako tarte dagoen aztertu beharko litzateke.



C) Jaurlaritzaren plangintza orokorrarekin eta Gobernu Programan ezarritako jarraipen-adierazle eta -helburuekin duen koherentzia.

Jakina denez, GPak 10 herri-helburu aurreikusten ditu, gobernu-ekintzaren ezinbesteko erreferente direnak. Aipatutako herri-helburuetatik, Agendak euskararen ezagutzan eta erabileran aurrera egitea (6. helburua) egoki identifikatzen du erreferentetzat.

Herri-helburu horri beste gobernu-arlo batzuetatik eragiten zaio. Agendak berak sarreran xehatzen ditu hizkuntza politika arlotik lekora dauden GPko hainbat konpromiso eta ekimen, Kultura Sailaren eskumen esparruaren barruan nahiz kanpoan kokaturik daudenak. Horrela, Agendan sail guztiei dagozkien jarduerak jaso dira. Euskarak Jaurlaritzaren politiketan duen zeharkakotasun izaera islatzen du horrek.

Zeharkakotasun izaera horretatik plangintza orokorra aztertzeke beharra ondorioztatzen da. Aurreko atalean GPan jasotako konpromisoak eta ekimenak oinarri hartuta, gainontzeko sailetatik egin beharreko ekarpenei buruz aritu gara. Ekarpen horiek honako fasetan egin beharko lirateke: zehaztapenean, inplementazioan, jarraipenean eta ebaluzioan.

Aportazio horiek egin eta Agendan txertatzeko unean Jaurlaritzak aurreikusitako planifikazioa kontuan hartu beharko da.

Planifikazio estrategikoaren arloan, Hezkuntza Plana elaborazio fasean dagoela aintzakotzat hartuz, hizkuntza politika eta hezkuntza arloen arteko koordinazioa beharrezkotzat jotzen dugu. Izan ere, koordinazio horren bitartez bakarrik lor liteke bi arloen arteko konfluentzia esparruak modu egokian planifikatzea. Aipatutako planek koherentzia izan dezaten, plan bi horien esparru objektiboa ondo definitu beharko da. Horrela, jardueren zehaztapenean saihestu ezin daitekeen bikoizketarik balego, kontraesanik ez egotea bermatu beharko litzateke. Aitzitik, Hezkuntza Planaren objektuan euskararen garrantzia bigarren mailakoa balitz, are garrantzitsuago litzateke Hezkuntza Sailaren ekarpena Agenda estrategikoa osatzeari begira. Kasu batean zein bestean koordinazioa ezinbestekoa da.

Era berean, bestelako plan estrategikoen kasuan, bai eta sailetako planifikazioaren arloan ere, koordinazioa bilatu beharko da. Agendak berak jasotzen duenez, hizkuntza politika arloan lau ildo nagusi identifikatu dira: arlo sozioekonomikoa; hizkuntza eta generoa; ingurune digitala; eta Euskara Sustatzeko Ekintza Plana. Ildo horien erreferentzia hartuta, arlo bakoitzarekin lotutako sailetako planak eta estrategiak aintzat hartu beharko dira, kontraesanak saihesteko eta sinergiekin baliatzeko.

V. Ondorioak

Txosten honek baloratu behar dituen alderdiei dagokienez, GKEan ezarritakoaren arabera, honako ohar hauek egiten dira:

1. Agenda proposamena koherentea da XII. Legegintzaldiko Gobernu Programan ezarritako eduki eta helburuekin.



2.- Aurreko Agenda Estrategikoaren ebaluazioari dagokionez, iturririk garrantzitsuena falta dela bide, ondo arrazoituta agertzen da gabezia. Edozelan ere, diagnostikoa osatzeko adierazleetatik ondorioztatutako xehetasunen balioa nabarmendu behar dugu. Nolanahi ere, informazio iturriak eskuragarri daudenean ebaluazioa egin beharko da, Agendan agertzen den diagnostikoaren osagarri gisa.

3.- Helburuen arloan, abiapuntua eta helmuga kuantifikatzea posible den aztertzea gomendatzen dugu. Era berean, hezkuntza sistemak euskalduntzeari begira eta, bereziki, ezagutzari begira egiten duen ekarpena aintzat hartuz, helbururen bat finkatzea egokia den azertu dadin proposatzen dugu.

4.- Inplementatu beharreko jardueri dagokienez, deskribapena osatzeko aukera aztertzea proposatzen dugu, posible den kasuetan, objektua gehiago definituz eta honako eduki hauek barne hartuz: jarduerak eraginkortasunez gauzatzeko behar diren baliabideak; ardura izango duten organoak; gauzatzeko epea; eta emaitza- eta jardueradierazleak. Jarduerak osatzeko, gainontzeko sailetatik egin beharreko ekarpenak ezinbestekotzat jotzen ditugu.

5.- Adierazleen artean, hezkuntza sistemak euskalduntzeari eta, bereziki, euskararen ezagutzari egiten dion ekarpena neurtzeko baliabideak zehaztea proposatzen dugu.

6.- Ebaluazioari dagokionez, zalantzarako aukerarik egon ez dadin, Agendaren indarraldia bukatutakoan ebaluazio txostena egingo dela argi adieraztea proposatzen dugu.

7.- Agenda proposamena Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde-artikulazioaren eta haren eskumen-esparruaren barruan dago, eta koordinazio-eremu egokia jasotzen du. Estatu mailari dagokionez, koordinaziorako eta elkarlanerako tarte handiagoa dagoen aztertzea proposatzen dugu.

8.- Agenda proposamena bat dator Jaurlaritzaren plangintza orokorrarekin eta Gobernu Programan ezarritako jarraipen-helburu eta -adierazleekin. Adierazleei buruzko atalean, koherentzia hori indartzeko lanean jarraitu beharko da bien arteko aldeak murrizteko.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 28a.

Iker Garcia de Eulate Urdangarain

Plangintzaren eta Koordinazioaren arduraduna

O.E.: Luis Petrikorena Arbelaiz
Koordinaziorako zuzendaria